**Azalpen txostena, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruzkoa.**

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako aurrekontu proiektua egin da emaitzak lortzera bideratutako jarraibide berriak oinarritzat hartuz.

Dentro del marco del Plan Estratégico de Gestión, se ha elaborado el proyecto de presupuestos del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, siguiendo las nuevas directrices que lo orientan a la obtención de resultados.

Programek aurretik ezarritako helburu estrategiko bakoitzari dagokion jarduera lerroetan dauden ekintzak jasotzen dituzte. Bertan jasotzen dira ere, nahiz eta jarduera estrategiko lerrokoak ez izan, GFAko departamentu egiturari buruzko Foru Dekretuak departamentu honi eman dizkion helburuak eta eskumenak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren ekintza arrunta guztiak.

Los diferentes programas recogen las acciones comprendidas en las diferentes líneas de actuación correspondientes a cada uno de los objetivos estratégicos prefijados. Se incluyen también todas aquellas acciones que si bien no corresponden a líneas de actuación estratégicas, constituyen acciones ordinarias necesarias para el correcto desarrollo de los fines y competencias que el Decreto Foral de estructura departamental de la DFG atribuye a este Departamento.

Horrela, programak departamentuari atxikitako helburu estrategikoetara egokitu dira eta adierazle nagusiak burutu.

Así se han adaptado los programas existentes a los objetivos estratégicos asignados al departamento y se han desarrollado los indicadores principales.

Berri nagusiena da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian sortu den **15. programa – Aldaketa Klimatikoa.**

La principal novedad es la creación del **programa 15- Cambio Climático**, en la Dirección General de Medio Ambiente.

Ondorioz, gastuko kontzeptu batzuk banatu egin dira:

En consecuencia se han redistribuido algunos conceptos de gasto:

**01- Programa- Zerbitzu Orokorrak**

**Programa 01-Servicios Generales**

Programa honetan jasotzen dira Departamentuak garatutako programak eta jarduerak bultzatzeko, koordinatzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren baliabideak, eskatutako babesa eta aholkularitza ematea, eta baita Departamentuko sistema administratiboak eta informaziokoak hobetzera bideratutako jarduerak bultzatzea ere, Departamentuari atxikitako helburuak

En este programa se contemplan los recursos necesarios para impulsar, coordinar y controlar los programas y actividades desarrolladas por el Departamento, prestar el apoyo y asesoramiento que se requiera, así como impulsar cuantas actividades conlleven una mejora de los sistemas administrativos y de información del Departamento, contribuyendo al cumplimiento de los

betetzen lagunduz.

objetivos asignados a este Departamento.

**10. Programa – Ingurumenena**

Programa honek jasotzen ditu Ingurumen Zerbitzuko jarduera guztiak oro har, eta beste aurrekontu programetan zehazten diren eremu funtzionaletako jarduera arruntak. Bertan sartzen dira hauei dagozkien zuzkidurak: azterlanak eta irispenak, bulegoko materiala, dietak, altzariak, telefonoa, ekipo informatikoak, web-orriaren mantenua, etab.

Berrikuntza gisa sartzen da LIFE LEMA Europako proiektuari jarraipena egiteko laguntza teknikorako kontu sail bat.

**Programa 10- Medio Ambiente**

Este programa comprende todas las actuaciones de carácter general del Servicio de Medio Ambiente y las comunes a las áreas funcionales, que se concretan en otros tantos programas presupuestarios. Incluye las dotaciones correspondientes a estudios y dictámenes, material de oficina, dietas, mobiliario, telefonía, equipos informáticos, mantenimiento del portal-web, etc.

Como novedad se incluye una partida para un asistencia técnica al departamento para el seguimiento del proyecto europeo LIFE LEMA.

**11. Programa- Hondakin eta hondartzak**

2017ko aurrekontuak aurre egiten die hondakinen arazoaren irtenbidearekin lotutako 46, 48 eta 50 helburu estrategikoei, eta birziklapena eta berrerabilpena eta Gipuzkoako hondartzetako kudeaketa integrala bultzatzen duen lankidetza organismoaren dinamizazioari.

Aurrekontuak, ildo berean jarraitzen du, oro har, zenbait berrikuntza sartuta.

II. kapituluan jarraipena ematen zaie hondakinen prebentzioaren arloan prestakuntza eta sentsibilizazio azterketak eta ekintzak burutzera zuzendutako aurreko jarduerei ( etxeko konposta eta konpostaje komunitarioa egiteko ikastaroak, ikastetxeetako kanpainak, prebentzioko Europar astea, etab). Sortu den birziklatze eta berrerabilpenaren klusterra indarrez bultzatzeko kredituak aurreikusten dira. Halaber, aurreikusten da kontratatzea, besteak beste, hondartzak garbitzeko zerbitzua, hondartzak babesteko laguntza teknikoa, ur gainean dauden itsas hondakinak kudeatzeko zerbitzu adimentsua den LIFE LEMA Europako proiektuari aurre egiteko beharrezkoak diren funtsak, eta hondartzetako zerbitzuak eta sentsibilizazioa hobetzeko

**Programa 11-Residuos y playas**

El presupuesto de 2017 da respuesta a los objetivos estratégicos 46, 48 y 50, relacionados con la solución al problema de los residuos, a la dinamización de un organismo de colaboración que impulse el reciclaje y la reutilización y a la gestión integral de las playas de Gipuzkoa.

El presupuesto es, en general, continuista. Incluyendo algunas novedades.

En el Capítulo II se da continuidad a las actuaciones del año anterior dirigidas a realizar estudios y diferentes acciones de formación y sensibilización en materia de prevención de residuos (cursos de compostaje doméstico y comunitario, campaña en centros educativos, semana europea de la prevención, etc.). Se prevén créditos para un fuerte impulso al cluster de reciclaje y reutilización, ya creado. Se contempla también la contratación del servicio de limpieza de playas pero también una asistencia técnica para el refuerzo de la vigilancia en las playas, los fondos necesarios para hacer frente al proyecto europeo LIFE LEMA, de gestión inteligente de basuras marinas flotantes y otras acciones de mejoras de servicios y

bestelako ekintzak.

Bestalde, berrikusi eta eguneratuko dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren Aurrerapen Dokumentua eta baita Gipuzkoako Hiri Hondakinen Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa ere. Era berean, Biodonostiaren laguntzarekin Balorazio Energetikoko Plantaren hasi aurretiko ingurumen egoera karakterizatzeko kredituak bere horretan utzi dira.

IV. kapituluan, hondakinen prebentzioari buruzko diru laguntzei eutsi zaie; 2016ko deialdia amaitutzat emango da eta, 2017koa, zenbateko askoz ere txikiago batekin hasiko da.

Kapitulu honetako hainbat diru laguntza izendun mantentzen dira (Donostiako Udala, Elikagaien Bankua, Kristina Enea Fundazioa, Basque Culinary Center). 4 beka sortu dira eta unibertsitateei eta zentro teknologikoei zuzendutako kontu sailak mantentzen dira eta baita izaera orokorreko beste bat, xedea duena hondakinen prebentzioarekin, errefusaren murrizketarekin edo ingurumena hobetzearekin oro har konpromisoa duten Gipuzkoako erakundeekin lankidetzan aritzea. Hondartzetan salbamenduak burutzeko kontu sail bat mantentzen da.

VI. kapituluan jarraipena ematen zaio bereziki hondakinak prebenitzeko materiala erosteko kontu sailari (konpostagailuak, haizagailuak…), bai tokiko erakundeetan bai ikastetxeetan hondakinak prebenitzeko kanpainaren barruan.

VII. kapituluan jarraipena ematen zaie inbertsioari zuzendutako diru laguntzen kontu sailei 2016/2017 eta 2017ko deialdiko hondakinak prebenitzeko eta birziklatzeko, nahiz eta azken hauen zenbatekoa txikiagoa izan.

sensibilización en playas.

Por otro lado, se contempla la revisión y actualización del Documento de Progreso del Plan Integral de Gestión de Residos Urbanos de Gipuzkoa, así como la modificación del Plan Territorial Sectorial de residuos urbanos de Gipuzkoa. Asimismo, se mantienen créditos para caracterizar la situación medioambiental preoperacional de la planta de valorización energética, con el apoyo de Biodonostia.

En el capítulo IV, se mantienen las subvenciones en lo que a prevención de residuos se refiere, terminando con la convocatoria de 2016 y comenzando con la de 2017, con un importe notablemente inferior.

Se mantienen algunas subvenciones nominativas de este capítulo (Ayto. de San Sebastián, Banco de Alimentos y Fundación Cristina Enea, Basque Culinary Center). Se crean 4 becas y se mantienen partidas dirigidas a universidades y centros tecnológicos, así como otra de carácter genérico cuyo objetivo es colaborar con aquellas entidades del Territorio comprometidas con la prevención de los residuos, la disminución de la fracción resto o la mejora del medio ambiente en general. Se mantiene una partida destinada al salvamento en las playas.

En el capítulo VI se mantiene la partida destinada fundamentalmente a la adquisición de material para la prevención de residuos (compostadores, aireadores, …) tanto en entidades locales como dentro de la campaña de prevención de residuos en los centros educativos.

En el capítulo VII, se mantienen partidas de subvenciones a la inversión en prevención de residuos y reciclaje de la convocatoria 2016/17 y de 2017, aunque esta ultima dotadas en inferior cuantía.

Azkenik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari atxikitako kontu sailak 2016. ekitaldian aurreikusitako ekarpena jasotzen du.

Finalmente, la partida asignada al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa recoge la aportación prevista en el ejercicio 2016.

**12. Programa- Iraunkortasuna**

**Programa 12- Sostenibilidad**

Programa honek 49. helburu estrategikoari erantzuten dio. Ondorioz, 2017. urtean II. Kapituluak jasoko ditu Tokiko Ekintza Planak gauzatzeearen ebaluazioko urteko kanpainaz gain, garapen jasangarrirako tokiko gobernantzaren adierazleen sistema, bestelako azterketak eta ekitaldiak eta baita TA21eko behatokiaren web orriko esparruaren edukien hobekuntzak ere.

Este programa responde al objetivo estratégico 49. En consecuencia, en 2017 el Capítulo II acogerá, además de la campaña anual de evaluación de ejecución de Planes de Acción Local, el sistema de indicadores de gobernanza local para el desarrollo sostenible, otros estudios y eventos relacionados así como mejoras de los contenidos del área web del observatorio de AL21.

Berrikuntza gisa, aurrekontu programa honek, orain, Gipuzkoa Naturaldia programa jasoko du, hau da, natura eta ingurumena dibulgatzeko programa. Programak, besteak beste, izango ditu 2 beka eta ingurumen elkarteei zuzendutako diru laguntzen lerro bat, eta Gipuzkoako Naturaldiako ekitaldi programa eta horrekin lotutako beste kanpaina batzuk.

Como novedad, este programa presupuestario acoge ahora el programa Gipuzkoa Naturaldia, destinado a la divulgación de la naturaleza y medio ambiente, que incluye 2 becas, una línea de ayudas a asociaciones medioambientales, el programa de eventos Gipuzkoa Naturaldia, propiamente dicho, y otras campañas relacionadas.

IV. kapituluan jasoko dira dekretua eta bekez gain, Gipuzkoako TA21 berritzea sustatzeko diru laguntzen lerro berri bat.

El capítulo IV soporta, además del citado decreto y las becas, una nueva línea de subvenciones para el impulso de la renovación de la AL21 de Gipuzkoa.

VII. kapituluaren barnean daude 2016/17ko deialdiko TA21 ezartzeko diru laguntzen lerroari aurre egiteko kredituak.

En el capítulo VII se incluyen créditos para hacer frente a la línea de ayudas a la implantación de la AL21 de la convocatoria 2016/17.

**13. Programa- Energia irunkorra**

**Programa 13- Energía sostenible**

Programa honek 49. helburu estrategikoari eta Energiaren Foru Planari erantzuten dio (Diputatuen Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 5eko Erabakia). 2017. urtean agiriaren berrikuspena egiten da, izan den parte hartze prozeduraren erantzunaren eta pobrezia energetikoa prebenitzeko estrategia gisa, lerro guztien indartzearen ondorioz. Gipuzkoako pobrezia energetikoa prebenitzeko behatokia bultzatuko da eta 2017. urtean inkesta bat egingo da arazo sozio

Este programa da respuesta al objetivo estratégico 49 y da respuesta al desarrollo de Plan Foral de Energía. (Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 5 de mayo de 2015). En 2017 se procede a abordar la revisión del documento en respuesta al proceso de participación habido y al refuerzo de todas sus líneas como estrategia de prevención de la pobreza energética. Se impulsará el observatorio de la prevención de la pobreza energética de Gipuzkoa y se realizará la

ekonomiko eta ingurumeneko horren jarraipen adierazleak eguneratzeko.

encuesta 2017 para actualizar los indicadores de seguimiento de esta problemática socio-económica y medioambiental.

2010/31/UE eta 2012/27/UE Direktibak eta eraikinetako eta instalazioetako arlo energetikoko bestelako zehaztapenak betetze aldera, foru eraikinetan eta instalazioetan kudeaketa energetiko jasangarriaren sistema bultzatzen jarraituko da, zeina, Aldundiko jasangarritasun energetikoko foru dekretuaren bidez arautuko baita. Mantendu eta hobetuko da Foru Aldundiko faktura energetikoa kontrolatzeko Informazio Energetikoko Sistema (SIE). Foru eraikinak eta instalazioak ez dira batere eraginkorrak ikuspegi energetiko batetik, eta hortaz, ezinbestekoa da ikasten eta proiektatzen jarraitzea eta hobetzeko inbertsioak aurrera eramatea (inguratzaileak eta instalazioen hobekuntzak), are gehiago energiaren prezioek goraka jarraituko dutenean. Horretarako, II. Kapituluan kredituak aurreikusten dira (azterketak eta irizpenak, mantenua eta energia berriztagarrietako instalazioetako tasak/zergak, monitorizazio sistemen mantenua) eta baita VI. Kapituluan ere (proiektuak, lan zuzendaritzak, proiektuak, obrak eta instalazioak)

Con el objeto del cumplimiento de las Directivas 2010/31/UE y 2012/27/UE y otras disposiciones en materia energética de edificios e instalaciones se continuará impulsando el sistema de gestión energética sostenible de los edificios e instalaciones forales, que se regulará a través de un decreto foral de sostenibilidad energética foral. Se mantendrá y mejorará el Sistema de Información Energética (SIE) para el control de la factura energética de Diputación. Los edificios e instalaciones forales son, de partida, muy ineficientes desde el punto de vista energético, por lo que es necesario seguir estudiando, proyectando y llevando a cabo inversiones de mejora (mejoras en envolventes e instalaciones), más y cuando los precios de la energía van a seguir subiendo. Para ello se prevén créditos en el capítulo II (estudios y dictámenes, mantenimiento y tasas/impuestos de instalaciones de energías renovables existentes, mantenimiento de sistemas de monitorización) y en el capítulo VI (proyectos, direcciones de obra, proyectos y obras e instalaciones).

Era berean, II. Kapituluan kontu sailak aurreikusi dira hauei aurre egiteko: (1) sentsibilizazio ekintzak, zabaltzea eta horien berri ematea eragile profil desberdinei energia modu jasangarrian erabiltzea bultzatzeko (web, jardunaldiak, tailerrak, etxeetan energia elektrikoa aurrezteko ARGITU 2 kanpaina, etab.) eta energia jasangarriaren arloko beste ekitaldi eta kanpainak, hala nola urteko energia jardunaldiak

Asimismo, en el capítulo II se han previsto partidas para hacer frente a: (1) acciones de sensibilización, divulgación y comunicación para promover el uso sostenible de la energía con diferentes perfiles destinatarios (web, jornadas, talleres, campaña ARGITU 2 de ahorro de energía eléctrica en hogares, etc.) y otros eventos y campañas en materia de energía sostenible, como las jornadas anuales de energía.

IV. kapituluak eskualdeko garapen agentzien laguntza jasotzen du energiako eskualdeko planak idazteko eta bultzatzeko prozesuetan (lerro horrek parte hartze prozesuetan du jatorria) hainbat kontu sail izendunekin eta beste bat izaera orokorrekoarekin, prozesuan sartzen diren eskualdeak progresiboki jasoz. 2017ko diru laguntzen deialdiaren bidez,

El capítulo IV contempla el apoyo a las agencias de desarrollo comarcal en los procesos de redacción e impulso de los planes comarcales de energía (línea cuyo origen está en los presupuestos participativos), con algunas partidas nominativas y otra de carácter general para ir acogiendo progresivamente a las comarcas que van

tokiko jasangarritasun energetikoa bultzatzeko kredituak ere jasotzen ditu.

incorporándose al proceso. También incluye créditos para el apoyo a la sostenibilidad energética local (estudio y planificación) a través de la convocatoria de ayudas 2017.

**14. Programa– Degradatutako esparruak**

Programa honek departamentuko planeko helburuei erantzuten die. Barnean sartzen dira azterketa ekintzak, ingurumenari dagokionez degradatuak dauden eremuak lehengoratzeko proiektuak eta ekintzak eta baita ingurumen inpaktuaren ebaluazioa izan duten obra eta planen ingurumena zaintzeko laguntza teknikoa ere.

**Programa 14- Áreas degradadas**

Este programa da respuesta a objetivos del plan departamental. Incluye acciones de estudio, proyecto y acciones de restauración de áreas ambientalmente degradadas así como una asistencia técnica para vigilancia ambiental de obras y planes que han sido sometidos a evaluaciones de impacto ambiental.

**15. Programa- Aldaketa Klimatikoa**

Programa berri honek departamentuko helburu bati erantzuten dio, berezko eskumenetatik abiatuz garapen hipokarboniko baterako trantsizioa bultzatzeko eta aldaketa klimatikoaren mehatxua murrizteko.

Kredituak jasotzen ditu aldaketa klimatikoari aurre egiteko estrategia bat garatzeko, eta besteak beste, hauek sortzeko: gai horri buruzko behatoki bat eta lurralde mahai bat, sentsibilizazioko ekintza programa bat, eta egokitzapen ekintzak burutzeko proiektu bat.

**Programa 15- Cambio Climático**

Este nuevo programa responde a un objetivo departamental con la misión de contribuir desde las competencias propias a impulsar la transición a un modelo de desarrollo hipocarbónico y a la reducción de la amenaza del cambio climático.

Incluye créditos para elaborar una estrategia de lucha contra el cambio climático, la creación de un observatorio y una mesa territorial en la materia, un programa de acciones de sensibilización, así como al proyecto y ejecución de acciones de adaptación.

**20. Programa- Azpiegiturak Hidraulikoak**

47. helburua garatzeko ekintzak jasotzen ditu. 2017ko aurrekontua aurrera doa egiteko dauden hondakin uren hornidura eta saneamenduko sistema orokorrak burutzen.

6. kapituluaren zenbatekoa kalkulatu da 2016ko kapitulu bereko aurrekontuaren gastu garbia (gastuak ken diru sarrerak) mantenduz.

Azpimarratu behar da 6120301 kontu saila (Proiektuak) nabarmen igo dela, 15.000 eurotik 270.000 eurora pasa baita. Igoera horri

**Programa 20- Infraestructuras Hidráulicas**

Contempla las acciones destinadas a desarrollar el objetivo 47. El presupuesto 2017 avanza en la ejecución de los sistemas generales de abastecimiento y saneamiento de aguas residuales pendientes.

El importe del capítulo 6 se ha elaborado manteniendo el gasto neto (gastos menos ingresos) del presupuesto de este mismo capítulo del año 2016.

Conviene resaltar un fuerte incremento en la partida 6120301 (Proyectos) que pasa de 15.000 euros casi testimoniales, a 270.000

esker, datozen urteko hornidura eta saneamenduko obrak burutzeko proiektuak egin ahal izango dira.

euros que van a permitir la elaboración de proyectos de ejecución de obras de abastecimiento y saneamiento a realizar en los próximos años.

Kapitulu honen zatirik handiena 6620002 kontu sailari dagokio (2015. urteko hitzarmena Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin). Hitzarmenean jasota dauden obren amaiera aurreikusten da. Hitzarmenaren helburua da Kontsortzioaren barruan dauden udalerrietan azpiegitura hidraulikoa bermatzea.

El grueso de este capítulo corresponde a la partida 6620002 (Convenio con el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa de 2015). Contemplaría la finalización de obras incluidas en el Convenio cuyo objeto es asegurar la infraestructura hidráulica básica en los municipios consorciados.

**21. Programa- Ur baliabideak eta uraren kalitatea**

**Programa 21- Recursos y calidad del agua**

Departamentuko jarduera operatiboaren barruan funtsezko bi helburu garatzen ditu, batetik, baliabide hidraulikoak planifikatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea eta Gipuzkoako uraren kalitatea kontrolatzea, eta bestetik, bultzatzea gure ur ekosistemen ingurumena eta morfologia lehengoratzea.

Desarrolla dos objetivos fundamentales dentro de la actuación operativa de este Departamento como son por un lado, la planificación, control y evaluación de los recursos hidráulicos y control de la calidad del agua del Territorio y, por otro, el impulso de la recuperación morfológica y ambiental de nuestros ecosistemas acuáticos.

Horrela, programa honen barruan sartuta daude beharrezkoak diren baliabide guztiak, batetik, mantentzeko eta hobetzeko plubiometria kontrolatzeko sareak (15 estazio), emariak kontrolatzekoak (24 estazio) eta ur kalitatea kontrolatzekoak (14 estazio), parametro horien guztien berri ematen baitute etengabe, eta, bestetik, urtero burutu behar diren azterketa hauek aurrera eramateko: isurketa kutsatzaileen inpaktuak, ibaien, estuarioen eta akuiferoen ur kalitatearen jarraipena, ibaien higaduraren jarraipena, aplikazio informatiko hidrologikoak eta informazio geografikoko sistemak (GIS) eta abar.

De este modo, dentro de este programa se incluyen todos los recursos necesarios para el mantenimiento y mejora de las redes de control de pluviometría (15 estaciones), caudales (24 estaciones) y calidad de las aguas (14 estaciones) que suministran información continua de todos estos parámetros, así como los necesarios para llevar a cabo toda una serie de estudios de impacto de vertidos contaminantes, seguimiento de la calidad de los ríos, estuarios y acuíferos, seguimiento de la erosión de los ríos, de mejora y mantenimiento de las aplicaciones informáticas hidrológicas y de los sistemas de información geográfica (GIS), etc…, que todos los años es necesario llevar a cabo.

Amaitzeko, programa honetan nabarmentzen dira bereziki, morfologia lehengoratzeko proiektuak, horiek baitira aurrekontuaren diferentzia nagusiaren arrazoia aurreko ekitaldiekin alderatuz. Izan ere, horiek

Para finalizar, en este programa destacan especialmente los proyectos de recuperación morfológica, responsables principales de la diferencia presupuestaria respecto a ejercicios anteriores, los cuales cuentan con una

Europako diru laguntza garrantzitsua jasotzen dute (% 50etik gorakoa) LIFE, FEDER eta INTERREG funtsen bitartez. Lerro horren barruan azpimarratzekoak dira Bidasoa eta Urumea ibaien azterketa hidromorfologikoak eta Urumea ibaiko Pikoaga presa eta Leitzaran ibaiko Oioki presa iragazkortzeko lanak.

importante cofinanciación europea (superior al 50 %), a través de fondos LIFE, FEDER e INTERREG. Dentro de esta línea cabe resaltar los estudios hidromorfológicos de los ríos Bidasoa y Urumea, así como la permeabilización de los azudes de Pikoaga en el río Urumea y de Oioki en el Leitzaran.